



Oihan-biomasa Nafarroan egunetik egunera arreta erakartzen ari den baliabidea da. Gero eta gehiago dira eskaintzen dituen erabilerak eta, tokiko entitateak, herri-lurretako oihanen jabe izanik, interes handiz begiratzen diote zabaltzen den aukerari, nola ekonomia aldetik, hala enplegu sortzearen aldetik edota herria energia hornitzeko aukeraren aldetik ere.

Nafarroan, urteak dira biomasak eskaintzen dituen potentzialitateen gaineko azterketa eta gogoeta egiten ari dela, besteak beste BIOSOUTH edo BIOCLUS proiektu europarrak direla medio. Nafarroako Gobernuak Nafarroan Biomasaren Erabilera Irakorrerako Ekintza Plana eta Nafarroa 2010-2020 Energia Plana egin ditu, bertan jasotzen dela atal bat biomasaren sustapenari buruz.

Tokiko entitate eta enpresa hainbatek abiarazi dituzte biomasaren erabilera eta kudeaketa antolatzeke planak eta proiektuak. Horietako batzuk dagoeneko gauzatu dira, esaterako Ultzamako distrito-sistema edota Eulaten biomasaz elikatzen den galdara instalatzea. Beste hainbat proiektu dira oraindik, besteak beste Burgiko instalazioak.

Tokiko entitateek biomasa ustiatzeko interesa erakutsi dute, bi gauza gogoan izanda, batez ere:

- Oihan-baliabide horrek enplegua eta aberastasuna sor ditzake jendez hustutzen ari diren lekuetan.
- Bero-iturria izan daiteke herri-instalazioetan, horien kostuak murrizteari begira, bertako baliabidea eskuratzen baitu, kanpoko erregai fosilen prezio-igoeraren aurrean.

Hala ere, zalantza anitz daude herrietako udal-batzarretan oihan-kudeaketaren inguruan, erregai mota desberdinen inguruan, lantzeko moduen inguruan, xehetze-makinak, galdarak, finantziazioa, laguntza publikoak...

J A R D U N A L D I A

Biomasa, aukera tokiko entitateentzat

Arbizu

2012ko maiatzak 31, osteguna

Tokia: Cederna egoitzan, Utzubar Industriagunea 8 - Arbizu

Ordua: 9:00etatik 18:30ak arte

Izen ematea eta argibideak: www.crana.org

Telefonoa: 948 140 818

E-mail: inscripciones@crana.org

Antolatzailea:



**Nafarroako
Gobernua**



European Union
European Regional Development Fund

Laguntzaileak:



J A R D U N A L D I A

Biomasa, aukera tokiko entitateentzat

Arbizu

2012ko maiatzak 31, osteguna

Landa Garapena, Industria, Enplegua eta Ingurumena Departamentuak antolatzen du jardunaldi hau, Europako REN-REN (Renewable Energy Regions Network) proiektuaren baitan eta Nafarroako CRANA (Nafarroako Ingurumen Baliabideen Zentroa) eta CEDERNA y TEDER agentziekin elkarlanean.

HELBURUAK

- ✕ Biomasa energia baliabide gisa dituen moldeak, erabilerak, potentzialitateak eta bideragarritasuna direla-eta tokiko entitateek dituzten zalantzak argitzea
- ✕ Gasoleozko ohiko galdaren ordean biomasa elikatutako galdarak jartzeko aukerak erakustea
- ✕ Proiektu baten ziklo osoa eta haren bideragarritasuna aztertzea. Oihan-baliabidea eskuratzea, lantzea (xehetzea, kalibratzea, biltegian gordetzea) eta udal berogailuetan erabiltzea
- ✕ Elkar ezagutzea eta harremanak sustatzea tokiko entitateen, teknologia zentroen, enpresen eta finantza entitateen artean, biomasaren inguruko proiektuak garatzeari begira
- ✕ Tokiko entitateei argibideak ematea finantziario eskuratzearen inguruan, energia kontratuen bidez, eta dauden laguntza publikoen inguruan

NORENTZAT

- ✕ Tokiko entitateak
- ✕ Garapen eragileak
- ✕ Energia berriztagarrien enpresak
- ✕ Ingurumen teknikariak eta aholkulariak

METODOLOGIA

Jardunaldiak bi atal izanen ditu

GOIZEZ

- Aurkezpenak eta mahai-inguruak hiru ardatzetan antolatutakoak:
 - Oihan-kudeaketa biomasaren tokian tokiko ustiapenerako
 - Biomasa galdarak, ezpalak
 - Finantziario eta Laguntza Publikoak

ARRATSALDEZ

- Bisitaldia Eulateko Ameskoa Egoitzara, bertako xehetze-makina eta biomasa-galdara ikusteko

Mahai-inguruetako lana tokiko entitateek aurrez egindako inkestan interes handienekotzat jo dituzten puntuan inguruan antolatuko da

1. ATALA OIHEN-KUDEAKETA

09:00 / Jardunaldiaren aurkezpena

Fernando Señas Bea, Nafarroako Gobernua
Isabel Elizalde, CEDERNAko gerentea
Cristina Roa, TEDEReko gerentea

09:15 / Oihen-kudeaketa biomasaren tokian tokiko ustiapenerako

OIHAN-ANTOLAMENDUA
Fermín Olabe Velasco, DRIEMAko Oihan-kudeaketa Atal-burua, Nafarroako Gobernua

10:00 / Mahai-ingurua

«Biomasa erabilera termikoetarako ustiatzeko aukerak, kostuak, egiturak»

OIHAN INGENIARITZA
Fermín Osés, Ekilan Eulateko Eredua
José Luis Barberena, Bioternako gerentea
Antonio Astráin, Foresna

11:15 / > Kafea

JOAN-ETORRIA

- ✕ Nahi dutenentzat **autobusa** antolatua dago. **Giozoko 8:15ean** aterako da **Hiru Errege Hotelean**. Arbizura joan, handik **Eulatera** eta **Iruñera** itzuliko da
- ✕ Autobusa erabiltzerik ez dutenentzat, CRANAK antolatuko du harremana **autoak konpartitzeko bide bera egin behar dutenentzat**

2. ATALA BIOMASA GALDARAK

11:45 / Biomasa galdarak: pellet, ezpala, erregai anitzekoak

Inés Echeverría / David Sánchez, Energia Berriztagarrien Zentro Nazionaleko (CENER) Biomasa Departameta

12:15 / Mahai-ingurua

«Esperientziak: arazoak, hasierako aurreikuspenen eta kontsumo eta kostu errealean arteko aldeak pellet eta ezpalen kasuetan»

Patxi Tornaría, Ultzamako zinegotzia
Eulateko Eredua
Jirko Bezdíček, LEVENGEReko zuzendari gerentea

3. ATALA FINANTZIAZIOA ETA LAGUNTZAK

13:30 / Mahai-ingurua

«Inbertsioak finantzatzeko sistema desberdinak»

Fernando Señas Bea, DRIEMAko Energia eta Mehategietako Atal-burua, Nafarroako Gobernua
Fermín Olabe Velasco, DRIEMAko Oihan-kudeaketa Atal-burua, Nafarroako Gobernua

Joseba Díaz de Garayo, Eloimar Renovables S.L. (ESE) Rural Kutxa

14:30 / Bazkaria

16:30 / Bisitaldia Eulateko zaharren egoitzako instalaziora

18:30 / Amaiera

